

bizi ola

Eraldaketarako polo kooperatiboa Goierrin



Bihar izan nahi duguna, gaurdanik elkarrekin eraikitzeko

Erronka handiak ditu aurretik Goierrik. Gure eskualdea, inguratzen gaituen munduaren erritmoan aldatzen ari da, eta azken hamarkadetan egindako lanari esker, erronka horiei erantzuteko errealitate sozial, ekonomiko eta komunitario interesgarrian aurkitzen da.

Baina erronka horiei erantzungo bazaie funtsezkoa izango da, eskualde gisa artikulatu eta elkarlanaren bidez, eskualde burujabeago, orekatuago eta iraunkorrago baterako trantsizioetan pausoak ematea. Proiektu zehatzak martxan jarritz eta eskualdeko eremu guztietan eraginez.

Bide horretan ekarpen komunitario-kooperatibo bat egin asmoz sortu zen Biziola Kooperatiba. Orain bidean pauso berri bat eman eta eraldaketa proiektu ezberdinen katalizatzaile izango den polo kooperatiboa jarri nahi du martxan Goierriin. Horretarako zuen denon laguntza ezinbestekoa delarik.



Biziola Fabrikaren irekiera ekitaldiko argazkia

Urtebete, hamaika pauso

2023ko urtarrilaren 20an ireki ziren Biziolako ateak. Urtebete egin berri du efemeride hark. Baina izebergaren metafora baliatuz, egun horretan proiektuaren puntatxo bat ikusi bazen ere, Biziola denbora luzez eta esku askoren borondatezko lanaren bidez eraikitzen joan den proiektua da. Goierrin eskualdetik eta eskualderako ekonomia sozialetik etorkizunera begirako proiektu eraldatzaileak martxan jarri armoz sortu zena. Ondoko helburu hauekin:



Urtarrileko batzar orokorreko argazkia

Goierrri burujabeago bat eraiki nahi dugu. Gure etorkizunaren gaineko erabakiak guk geuk hartzeko aukerak handituz bizitzako eremu guztietan. Kate ekonomikoak ahalik eta gertuen itxiz eta beharretan oinarritutako eredu ekonomiko autozentratuago bat sortuz. Askotan desio gisa aipatzen dugun helburu hau, behar ezinbestekoa dela agerian geratu da azken asteotan gainera.

Goierrri orekatuago bat eraiki nahi dugu. Desberdintasun sozialik gabea, genero arrakalarik gabea, anitza, herrien arteko oreka zaindu eta landuko duena, eremu sozioekonomiko ezberdinen artean orekak landuko dituena, ekonomia pluralago bat eraikiz finean.

Goierrri iraunkorrago bat eraiki nahi dugu. Bizi garen lurraren mugak kontutan hartu eta krisi klimatikoari aurre egingo diona. Finean bizitzaren iraunkortasuna bera, erdigunean jarriko duen eskualde bat. Produktiotik haratago erreprodukzioa ere aintzat hartuko duena. Bizi garen lurra eta lur horren gainean gabiltzan bizikideak elkar zainduko garen eskualde bat.

Epe luzeko begirada barnebiltzen duten helburu hauek lortzeko bidean ordea, ideien eta asmoen eremuan geratu baino ekitea da Biziolaren ezaugarri nagusietako bat.

Bada, hiru helburu hauek landa eremuaren eta elikadura burujabetzaren arloan lurreratzeko lan egin du azken hilabeteetan proiektuak. Horrela Biziola Kooperatiban dagoeneko Goierriko 500 herritar eta 25 ekoizle- nekazari bazkidetu dira.

Bien arteko harreman edo zubi lanetarako Biziola denda jarri da martxan, eskualdeko ekoizleei garai berrietara egokitutako plaza bat eskaini eta euren proiektuen jasangarritasunean laguntzeko (lehen urte honetan ia 70.000 € bideratu dira eskualdeko ekoizleengana bide honen bidez).

Epe labur honetan gainera, Biziolaren bultzada baliatuz, bi ekoizle berri hasi dira lanean eskualdean. Eta dagoeneko martxan daudenekin ekoizpen eredu iraunkorragoetara trantsizioak egiteko, norabide partekatu bat eta hasierako eskualdeko ekoizleen diagnostikoa osatu dira. Guzti hori 10 hilabetetan. Lanketa honek guztiak, ekoizleen arteko harremanak eta sinergiak sendotzeko ere balio izan du.



Elikagaiak eskualdeko herri guztietara iristeko banaketa sistemaren lehen pausoak ere eman dira. Ataun, Segura, Gabiria, Mutiloa, Zerain, Arama, Altzaga... Landa eremuaren zerbitzura jartzea izan da banaketa-sistemaren lehen jomuga.

Proiektuaren izaera berritzailea ere aitortu dute sektoreko zenbait erakunde garrantzitsuk. Arlo horretan aipagarria da esaterako Nina Carasso fundazioak banaketa sistemaren garapenerako laguntzea onartu berri duen bi urterako proiektua. Hain justu proiektuaren hautaketa Espainiar estatuko 50 proiekturen artean eman baita eta Biziola lehen 5en artean geratu da, proiektuaren anbizio, bisio eta dimentsioa agerian jartzen duelarik honek.

Horrez gain asko dira denbora honetan martxan jarritako bestelako ekimenak ere, Hala nola:

· Uzaola elkartarekin elkarlanean Zaldibiko Goizane espazioan kokatzen den transformazio gunearen aktibazioan ari gara lanean. Modu honetan batetik eskualdeko ekoizleen dibertsifikazioa bultzatu nahi da eta bestetik galtzen diren produktuei bigarren bizi bat eman ekonomia zirkularra bultzatuz.



· Legorretan, bakardade egoeran dauden adinekoentzako arreta zentruan tokiko elikadura eta ongizatea uztartzen dituen proiektua garatu da, eskualdeko eta gertuko elikagai freskoak adinekoen beharretara egokituriko menuan txertatu eta eskuragarritasuna erraztuz zein erabiltzaileekin elikadura ohiturak landuz



Garatutako proiektu guztiek ere, interkooperazioa dute oinarrian. Eta elikadurarekin abiatu den bidea beste eremu batzuetara hedatuz, proiektuaren hasierako ideari heldu eta pauso garrantzitsu bat eman nahi da, Biziola Fabrikaren potentzialitate osoa garatu eta bertan Goierriko Polo Kooperatiboa martxan jarrita.

Ekonomia soziala, eraldaketarako bektore

Garai aldakorrek bizi ditugu dudarik gabe. Orain arteko garapen ereduak ageriko mugen aurrean kokatu gaitu. Planetaren muga biofisikoekin tupust egin dugu eta honek orain arte pentsaezinak ziren trantsizioen atarian kokatu gaitu. Trantsizio energetiko eta ekologikoak gure metabolismo ekonomiko eta soziala berdiseinatzerara eraman behar gaitu ezinbestean. Bai behintzat irtenbide orekatu eta justu bat bilatu nahi badugu.

Honek orain arteko ekonomia ulertzeko eta antolatzeko modua eraldatzea eskatzen du. Azken finean, ekonomia, lurralde bateko herritarrek euren bizitzak modu duinean garatzeko dituzten premiei erantzuteko zerbitzu eta baliabideak antolatzeko eremua baita. Eta premia horiei modu batean edo bestean erantzun dakioke, erantzun horrek berak baldintzatuko duelarik komunitate horren garapena.

Bada, ekonomia sozialak, ekonomia ulertzeko eta antolatzeko modu propio bat eskaintzen du. Erdigunean komunitatearen premiak kokatzen dituen etekin indibidualaren aurretik. Goierrri gaur dagoen lekuan badago, neurri handi batean duela hamarkada batzuk ekintzaile batzuk, etekin pertsonalaren aurretik, lurraldearen eta komunitatearen garapena jarri zutelako da. Bestela ezin da ulertu Goierrriko industrian kooperatibismoak duen pisua munduko beste lurralde gehienekin alderatuta.

Izenak ordea ez du izana ematen eta badakigu balio kooperatiboak egunero ongarritu behar direla. Indibidualismoa eta etekin pribatua eguneroko ogia den munduan, oso zaila da balio kooperatiboetan funtzionatzen duten errealitateak sortu eta mantentzea. Korrontearen aurka aritzeak korronteak baino indar handiagoa egitea eskatzen baitu. Horregatik funtsezkoa da bi norabidetan lan egitea. Alde batetik eskualdeko ekonomia sozialeko eragileen arteko sinergiak eta aliantzak sendotuz. Eta bestetik errealitate kooperatibo berriak sortuz, berriz ere eskualdeko komunitatearen balio kooperatiboak sendotzen lagunduko dutenak.

Hasia dugu bidea. Logika kooperatiboa muinean, interkooperazioa landuz egin ditugu orain artekoak. Eskualdeko elikagai ekoizleen behar indibidualei erantzuteko estrategia kolektiboak landuz; elikaduraren balio-kateko sinergiak mahai ganean jarritz eta kate berriak artikulatuz lankidetzatik; ekonomia sozialeko eskualdeko proiektuen beharrak eta eskaintzak aztertuz eta interkooperaziorako baldintzak eta baliabideak eskainiz.

Sinetsita gaude, etorkizunari aurre egingo badiogu, esku arten izan dezakegun balio nagusia, balio kooperatiboak direla. Finean aurrean ditugun erronkek bidegurutze baten aurrean kokatu gaituztelako: Zer egingo dugu elkarlana ala elkarjana? Bada elkarlanean, arituz ikasten da. Eta aritzeko baldintzak eraiki eta elikatu egiten dira. Horretan ari gara.




Polo kooperatibo bat

Goierrin

Polo kooperatibo bat, lurralde jakin bateko ekonomia sozialeko eragileak espazio fisiko berean elkartzen dituen proiektu bat da. Espazioa partekatuz, lurraldeko ekonomia sozialeko eragileen artean sinergiak sortzea du helburu eta horrela lurralde horren garapen estrategian ekarpen positiboa egitea. Sarri, gisa horretako polo kooperatiboek, dagoeneko martxan dauden proiektu kooperatiboak saretu eta sendotzeaz gain, proiektu berriak sortzen laguntzeko hazigune gisa ere funtzionatzen dute. Bada, nazioartean badira polo kooperatiboen esperientzia arrakastatsuak, sarri lankidetzaren publiko-kooperatibo-komunitarioaren bidez sortuak eta lurraldean eragin oso positiboa dutenak, horietan esanguratsuena, Bartzelonan eraiki berri duten *Bloc4BCN* polo kooperatiboa litzateke. Badira ordea, bestelako adibide txikiagoak ere, *Aiaraldea Ekintzen Faktoria* edo Bartzelonako *La Comunal* polo kooperatiboa.

Nazioartean eta Euskal Herrian ere geroz eta ugariagoak dira mota honetako proiektuak. Bada Biziolaren gidaritzapean jauzi berri bat eman nahi dugu, eta azken urte betean elikadura burujabetzaren aldeko erreferentziazko espazioa bihurtu den Biziola Fabrikari dimentsio berri bat zabaldu eta eskualdeko proiektu eraldatzaileen espazio partekatu eta proiektu berrien sorleku bihurtu nahi dugu. Horretarako, gaur egun erabiltzen ez diren espazioak martxan jarri nahi ditugu eta eskualdeko eragile ezberdinekin elkarlan dinamika bat abiatu dugu dagoeneko. Goiko solairuan eskualdeko proiektu ezberdinentzako lanerako espazioak kokatuko ditugu eta baita, proiektu berriak sustatzeko espazioak ere. Baina espazioaz harago, gune partekatu hauek dinamika jarrai eta aberats bat izan dezaten, ingurune hauen dinamizazioaz arduratuko da Biziola. Espazioak partekatzearen azken helburua, elkarren arteko sinergia eta proiektu berriak sortzea baita.



Elkargunea

Sukaldea eta inguratzen duen jangela-egongelara bista



Bulegoa barnealdetik
Elkartutako bi bulegoren bista

Goierriko Polo Kooperatiboa izango denaren garapena ordea, Biziolak eskualdeko zenbait eragilerekin elkarlanean eman beharreko pauso batekin lotuta dago. Dagoeneko badira bi urte gaur Biziola kokatuta dagoen fabrika alokatu genuela. Orduko hartan, erosketa aukera jasotzen zuen hiru urterako alokairu kontratu bat adostu zen fabrikaren jabearekin. Beti ere, alokairuan ordaindutakoa, balizko erosketa bateko eraikinaren prezioetik deskontatuko zelaririk. Goiko solairuan espazio berriak martxan jartzeko apustua egingo bada, eraikina erosteko apustuaren eskutik joan beharko da ordea; ezinbestean, batean egin beharreko inbertsioak, iraunkortasunerako segurtasuna eskatzen baitu eraikinaren erabileran.



Coòpolis, Ateneu Cooperatiu , Bartzelona